

Harian

10 ■ Errea eta Larraz abokatuak, libre
Kartzela zigorra jaso dute, baina ez dute espetxera joan beharko; hala ere, ezingo dute Frantzian jardun.

Hasi da mailegu sistema, editoreen kezka artean

Ikasliburuak trukatzeko hasiko dira ikasturte honetan Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikasleak

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA
Bilbo

Azken bi urteetan hainbesteko zeresana eman duen ikasliburuen mailegu sistema ikasturte honetan ezarriko da Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikastetxeetan. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailatan ezarriko du Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Sailak. 22.641 ikasleri eta 323 ikastetxeri eragingo die. Baina, berez, ez da mailegu sistemaren erabateko ezarpena izango, Hezkuntza Sailak jasoa duenez, maila horietan urtero aldatuko direlako ikasliburuak. Datorren ikasturte-tik aurrera igarriko dituzte gurasoek hobeto mailegu sistemaren eraginak.

Gurasoak, oro har, gustura dauka Hezkuntza Sailak prestatu duen ikasliburuen mailegu sistemarekin. Imanol Zubizarreta Baikara Gipuzkoako Ikasleen Guraso Elkartearen presidentea esan duenez, sistema horrekin liburuak daukan balioa azalduko zaie neska-mutikoei. Jaurlaritzak ezarritako mailegu sistemarekin gustura ez daudenak Euskal Herriko argitaletxeak eta liburu saltzaileak dira. «Honek kalte jasangaizak ekarriko dizkie argitaletxei eta liburu dendei. Hezkuntza sistemak berak eta gizarte osoak izango du kaltea», esan du Elkar argitaletxe-ko Olatz Osa.

Aurreko ikasturtean, 23 ikastetxe ere ezarri zuten mailegu sistema, proba modura. Hezkuntza Sail-eko Ikastetxe zuzendari Patxi Olabarriaren arabera, gustura daude egindako probarekin. «Balanzea ona da, ikastetxeetan dagoen ikuspegi zabala zein den jakiteko balio digulako. Gure ikastetxeetan aniztasuna dago mailegu sistema ezartzeko orduan». Izan ere, ofiziala izan ez arren, ikastetxe askotan indarrean dute aspalditik liburuak ikasle batek besteari uzteko sistema.

Hezkuntza Sailak ezarritako mailegu sistemari dagokionez, ikastetxe batzordea da berriasun nagusia. Ikastetxe bakoitzak batzorde bat eratutako beharko du, eta hori arduratuko da liburuaren ze-

renda prestatzeaz. Ikastetxe-ko zuzendaritza taldeak eta ikasleen gurasoek osatuko dute batzorde hori. Bera arduratuko da erosi beharreko liburuaren zerrenda egiteaz, eta liburuak non erosiko diren ere zehaztuko du. «Ikastetxetik hurbil egoteko edo herrikoak bertakoak izateko eskatu diegu ikastetxei», zehaztu du Olabarriak.

Hemendik aurrera, ikastetxe-ko gurasoei igorriko die erosi beharreko liburuaren zerrenda. Gurasoak esandako liburutegietara joango dira, eta liburuak erosiko dituzte. Baina faktura gorde egin beharko dute, eta gero ikastetxe-ari eman, hark dirua itzultzeko. Bada beste aukera bat: ikastetxe-ko guraso elkarteak zuzenean erostea liburuak. Baina gurasoek ez dute diru guztia jasoko. Ikasliburu-ek balio dutenaren %25 ordaindu beharko dute. Gainera, Hezkuntza Sailak ikasle bakoitzeko ikasliburu-ko kostu finkoa jarri du: 103 euro.

«Argitaletxeekin eta liburu saltzaileekin akordioak lotzeko prest gaude, eta lotu nahi ditugu»

PATXI OLABARRIA
JAURLARITZAKO IKASTETXE ZUZENDARIA

«Mailegu sistemak izan ditzakeen ondorioez konturatzeko garenean, baliteke beranduegi izatea»

JOSE AGUSTIN ITURRI
ERREIN ARGITALETXEA

«Mailegu sistemarekin guk bakarrik ez dugu galduko, hezkuntza sistemak berak kalteak izango ditu»

OLATZ OSA
ELKAR ARGITALETXEA



Editoreak, Legebiltzarrean euren txostena aurkeztu zuten egunean. J. RUIZ / AIZP

Ikasturte honetan, jarraipen batzorde bat sortuko du Hezkuntza Sailak, mailegu sistema berriaren ezarpena nola egiten den ikusteko. Zenbait gaitan zalantzak ditu Hezkuntza Sailak, eta jarraipen batzorde horren bitartez argitzea espero du. Ikasliburuaren 103 euroko salneurria egokia den edo ez da zalantzetako bat. Era berean, zenbait ikastetxe-ko diote beraiek ikasliburuaren autoproduzioa egiten dutela. Hori egia den edo besterik gabe liburuaren fotokopiak egiten diren begiratu du Jaurlaritzak.

2008-09ko ikasturte-tik aurrera, hobeto ikusiko dira mailegu sistemaren eraginak. Ikasturte horretan sartuko dira Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak. Hurrengo ikasturtean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) sartuko da, eta 2010-11ko ikasturtean ziklo bera jarraituko dute ikastetxe-ko zuzendariak. Behin Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako zikloak gaindituta, lau urterik behin berri-tuko dira ikasleen liburuak, eta gurasoek ikasliburuaren balioaren %25 ordaindu arren, horien jabetza ikastetxe-ko izango da.

EDITOREEN KEZKA. Sistema horrek ekarriko dituen «ondorio larriak» azpimarratu dituzte Euskal Herri-ko hainbat editorek. Editoreen Elkar-arteak txostena prestatu zuen aurreko urtean, eta mailegu sistema ezarriko gero sektorea «koloka» geratuko litzatekeela esan zuten. Erein argitaletxe-ko Jose Agustin Iturrik nabarmendu duenez, «zenbait argitaletxetan ikasliburuak urteko diru sarreraren %80 dira». Editoreei ez ezik, mailegu sistemak liburu dendei, marrazkilariei eta antzekoei ere kalte egingo diela nabarmendu du. «Mailegu sistemak nolako eragina izango duen hemendik urte batzuetara



Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako 2.600 neska-mutikori eragingo die aurtengo mailegu sistema

ikusiko dugu, baina konturatzeko garenean, baliteke beranduegi izatea».

Mailegu sistemaren eragina igartzeko hasia dela agertu du Elkarreko Olatz Osa. «Argitaletxe batzuek pentsatzen hasiak dira proiektu batzuk aurrera ez eramatea». Gaineratu duenez, sektorean bakarrik ez, hezkuntza sistema guztian ikusiko da mailegu sistemaren eragina. «Honek guztiak ekarriko du argitaletxe-ko egiten dituzten ikasliburuaren kalitatea jaistea, ezin izango direlako hainbeste baliabide horretara bideratu». Gogoratu duenez, mailegu sistemaren bat ezarria duen erkidego batzuek hasi dira hori aldatzea pentsatzen. Galizian hori gertatu ari da, adibidez. «Galizian argitaletxe-ko jaso duten jipoiak izugarria izan dela ohartu dira».

Mailegu sistemak izan ditzakeen eraginez konturatu da Hezkuntza Saila, eta hainbat bilera egin dituzte argitaletxeekin eta liburu dendetako arduradunekin, egoerari konponbide bat aurkitu guran. «Haiekin akordioak lotzeko prest gaude, eta lotu nahi ditugu», adierazi du Olabarriak. Gainera, neurri berriak izan dezakeen eragina zein den ikusteko, azterke-

ta egiteko eskatu diote Deustuko Unibertsitateari. Editoreek ere akordioak lotu nahi dituzte, baina ñabardura batekin. «Hainbat bilerak egin ditugu, baina, une honetan, orain bi urte geunduen egoera berean gaude», esan du Osa.

Olabarriak adierazi duenez, editoreak konturatu behar dira ikasliburuaren testuingurua aldatu egin dela azken urteotan. «Euskarri digitalak gero eta garrantzia handiago duela konturatu behar dira». Garai berrietara egokitzeko prest azaldu dira argitaletxeak, baina azpimarratu dute liburuaren dela honen guztiaren muina. «Orain 10 urte liburuak galtzeaz zela esan ziguten. Hori ez da gertatu, eta ez da gertatuko. Euskarri digitala hor egongo da, baina liburuak edukia osatzeko izango da», azaldu du Iturrik.

Eztabaida horretatik urrun dira, ordea, gurasoak. Zubizarretak agertu duenez, «hori ez da guraso-ko dagokigun kontua». Jaurlaritza eta editoreen artean konpondu beharkeko dela deritzote. «Seme-alaben hezkuntza ona izateaz arduratu behar naiz ni, behar diren baloreak jasotzen dituztela zaindu behar dut, eta une honetan, mailegu sistemak balore jakin batzuk transmititzen dituela deritzot».